

Lanaur BAT



Urteko informazioa Pixkanaka Kaskari

2020 abe 31

Ibex35: -%15,45
Bonoa 10u: %0,05
KPI: -%0,30


Lanaur BAT

%0,57

12 hilabete


Lanaur BAT
10 urteko errent.
urtekatua

%3,59




URTEA GAINDITUTAI

Pandemiak mundu mailako merkatuetan izan zuen eraginaren ondoren, urtea positiboan ixtea lortu da. Susperraldia ez da orekatua izan, eta inguru geografiko batzuk atzean geratu dira.



{GRAFIKOA} Erabakiak eta epe luzea

Epe luzeko ikuspegi batetik, gure ustez hori bait da BGAE bat kudeatzeko hartu behar den ikuspegia, joera positiboari eustea lortu dugu. Joera horrekin jarraitzeko, bazkideen batez besteko adina eta inbertsio-horizontea kontuan hartuta, hainbat erabaki hartu ditugu errentagarritasuna eremu positiboan eusten saiatzeko. Erabaki horiek Lanaurren errentagarritasunean nola eragin dezaketen aztertuko dugu PK aldizkariaren hurrengo alean.




AZKEN 10 URTE EMAITZAK

	LANAUR BAT	KPI EUS
2011	%1,47	%2,40
2012	%7,90	%2,70
2013	%6,06	%0,60
2014	%7,93	-%0,70
2015	%2,68	%0,30
2016	%2,94	%1,50
2017	%3,81	%1,10
2018	-%1,95	%1,00
2019	%5,00	%1,20
2020	%0,57	-%0,30
10 URTE	%42,38	%10,19

Eta 2021ean zer?

SEGURTASUNAREN ALDEKO APUSTUA
Bazkideen batez besteko adinak gora jarraitzen du, eta, beraz, erabili daiteken inbertsio-epa txikiagoa da. Ondorioz, errenta aldakorrarekiko esposizioa murriztea erabaki da, BGAEak urteko emaitza negatiboa izateko arriskua murrizteko.

Errenta aldakorraren pisua



Errenta finkoak, bestalde, errentagarritasun minimoa eskaintzen jarraitzen du, eta gure inbertsioen kudeaketa gero eta tarte estuagoan mugitzen ari da.

Dibertsifikazioak, geografia-birbanaketak eta kudeaketa-komisio baxuek (gehienez ere %0,25 Lanaur Baten kasuan, bezeroen komisioak %1,60 inguru izaten dira) lagun diezagukete errentagarritasun positiboak sendotasunez lortzeko gure helburuan.